

Ur ipurtatsa, edo bisoi europarra



Europa osoan arriskuan dagoen animalia penintsulan zabaltzen ari da

MIKEL ESTONBA

Duela gutxi arte bisoia larrugintzari lotutako Amerikako animaliarekin baino ez genuen erlazionatzen, baina azken urteetan, bere egoera kezkarria dela eta, European ur-ipurtats, edo bisoi europar izeneko ugaztun txiki bat bizi dela jakin ahal izan dugu.

Antzina ia Europa osoan zegoen animalia hau XIX. mendearen erdialdetik etengabeko atzerakada izaten ari da. Gaur egun, ur-ipurtatsaren egoera benetan kezkarria da, bere banaketa eremua erlazorik gabeko hiru populaziotara mugatuta gelditu baita. Bata, Europako ekialdean dago, Bielorrusia eta Errusiako mendebaldean; bestea, Danubio

ibaiaren deltan dago, Errumanian; beste bat, berriz, Europako mendebaldean bizi da, Frantziako hego-mendebaldean, Euskal Herrian eta Espainiako iparraldean.

Lehenengo bi populazioak iragan oparoagoaren azken lekukoak direla ematen du, baina Europako mendebaldeko populazioa espezie ezezagun honen zabaltze prozesu baten ondorioa izan daiteke; izan ere, 1951. urte arte Euskal Herrian ez baitugu animalia honen inongo arrastorik. Beraz, ugaztun txiki honen egoera nahiko berezia dela esan daiteke, gainontzeko leku guztietan amaierarik gabeko gain beheran den bitartean, gurean hedatzen ari baita.

Egoera horrek eta zabaltzen

ari den populazio horren zati handi bat Euskal Herrian egoiteak desagertzeko arriskuan dagoen ugaztun txiki honen kontserbazioaren arduradun nagusien artean jarri gaitu. Beste bi populazioak agertzen diren eskualdeen egoera sozio-ekonomikoa kontuan harturik, nekez egingo baita han espezie hau babesteko planik. Beraz, ur-ipurtatsaren iraupena alde honetako populazioaren kontserbazioan eta hedapenean datza neurri handi batean.

Ur-ipurtatsa tamaina ertaineko ugaztun haragijalea da. Gainontzeko mustelidoen modura, gorputz luzea eta hanka motzak ditu. Ur inguruarekin lotura estua duen animalia denez, oinetan nolabaiteko hatzarteko mintzak ditu. Ilajea arre iluna da gorputz osoan, muturrean izan ezik, hor goiko eta beheko ezpainak estaltzen dituen orban zuria du. Besteak beste, ezaugarri horrek bereizten du bisoi amerikarretik; izan ere, bisoi amerikarrak beheko ezpainean bakarrik du orban

ATZERAKADAREN ARRAZOIAK

Azken mende honetan ur-ipurtatsak Europa osoan izan duen atzerakada ikaragarria azaltzeko argi utzi behar da ikertzaileak hipotesien esparruan mugitzen direla oraindik. Ur-ipurtatsaren gainbehera ulertzeko proposatu diren arrazoiaren artean hurrengo hauek dira aipagarrienak:

- Ibai eta ibaiertzek azken mendean izan duten hondamen sistematikoa.
- Atzerakada gertatu den abiadurarengatik; beste batzuek izurritaren bat aipatu dute.
- Larrugintza granjetatik ihes egindako bisoi amerikarrek leku berean bizitzeko duten lehia ere aipatu da.
- Ehiza ere kontuan hartzeko arrazoi omen da beste hainbatentzat.
- Euskal Herriko ibai gehienek egoera tamalgarria dela eta, nekez uler daiteke ia Europa osoan desagertu den animalia-txo honek gurean zabaltze prozesuan egotea, baina datu guztiek horrela dela adierazten digute. Lehenago aipatu den moduan, espezie honen bizi-iraupena neurri handi batean gure esku dago. Ardura handi horri behar den bezala erantzuteko gai izango ote gara? Ez nuke ezkorregia izan nahi, baina gure politikariek ibai eta ibaiertzen inguruan daramaten politika ikusita, ur-ipurtatsak luzaroan bizitzeko itxaropen gutxi duela esango nuke.

zuria. Pisuari dagokionez, emeek 600 gramo inguru pisatzen dute, eta arrak 900 gramoraino irits daitezke.

Ilunabarrean eta gauean jarduten du, eta hamar kilometro baino gehiago egin ditzake gau bakar batean

Animalia bakartia da, eta batez ere ilunabarrean eta gauean jarduten du. Saltoka mugitzen da, eta hatzarteko mintzei esker igerilari eta urpekari trebea da. Batez ere jaten ditu ugaztun txikiak, arrainak, krustazeoak, moluskuak eta intsektuak, eta, neurri txikiagotan, baita hegaztiak, narrastiak eta fruituak. Jatekoa lortzeko ibaietako ertzen barrena ibiltzen da; gau bakar batean hamar kilometro baino gehiago egin ditzake. Ugalketa zikloa otsaila-martxoan hasten da. Orduan gertatzen dira estalketak, eta handik hiru hilabetera bost eta zazpi kume arteko kumaldia izaten du.

Antzina ia Europa osoan zegoen animalia hau XIX.mendearen erdialdetik etengabeko atzerakada izaten ari da; bere egoera kezkarria da gaur egun